

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bide zuzenaren hartxintxarrak



Amaia Alvarez Uribe

Azken bi urteotan testu feministak euskarara ekartzeko lana areagotu egin da, horren adibide da Susa argitaletxeak martxan jarritako Lisipe saila. Oraingoan, bilduma honetako 3. argitalpena izango dugu mintzagai: Monique Wittigen *Pentsamendu heterozuzena*.

1980an argitaratu ziren lehen aldiz liburu honetan bildutako testuak, eta 1992an heldu ziren ingelesezko eta gaztelaniazko itzulpenak. *La pensée straight*, *The straight mind* eta *El pensamiento heterosexual* bihurtu zen orduan, eta euskaraz *Pentsamendu heterozuzena* itzuli dute. Eskertzekoa da “heterosexual” hitza “heterozuzen” bihurtu izana, hala gure jendartearen “erregimen soziopolitikoak” edo “ordena sinbolikoak” markatutako bide zuzena zein den esplizitatu egiten delako zapalkuntzaren kontzientzia esnatzeko xedearrekin: “Borroka hasi arte ez da ageriko egiten oposizioen errealitate gordina eta diferentzien izaera politikoa”.

Horretarako, ekintzaren oinarri izango den pentsamenduari ematen zaio bide orriotan hurrengoiei erantzunez: Zer da emakumea izatea? Zer dira sexua eta generoa? Zer dago kontratu sozialaren atzean? Zein da gizateriaren parte eta zein ez? Erroretara joz, ideologiaren eta hizkuntzaren oinarrietara jotzen zuelako egileak errealitatea ulertu nahian, lesbianak emakumeak ez direla ondorioztatu zuen.

Izan ere, heterosexualitatea da jendartea egituratzen duen kontratu soziala, eta horren arabera, emakumeak eta gizonak daude, eskla-

Pentsamendu heterozuzena

MONIQUE WITTIG

Itzultzaileak:

Danele Sarriguarte,


Irene Arrarats,

Maialen Berasategi

eta Mirentxu Larrañaga.

Susa, 2017 (Lisipe bilduma)

*Monique Wittig idazlea
(Haut-Rhin, Alsazia
1935–Arizona, AEB 2003)*



buak eta nagusiak dauden moduan, menderakuntza harreman bat osatuz eta denon bizimodua goitik behera baldintzatuz.

Bere garaiak inposatutako arau eta muga sozialak aztertu nahi izan zituen jendarteko “kide aktibo” bat bezala. Horren ondorioz, idazle gisa praktikara eraman zituen subjektibitatea, agentzia eta ahalduntzea izenordainen erabilera berritzaileak eginez.

Euskal Herriko mugimendu feministan lesbiana feministek egindako ekarpena, *Gure genealogia feministak* liburuan diotenez, batik bat 1977-1997 tartean koka dezakegu, taldeak, sareak eta jardunaldiak antolatu baitziren ikusgarritasuna eta sexu askapena aldarrikatzeko. Hain justu Wittig-ek, lesbiana eta feminista, aipatutako deseraiqueta lana proposatu zuenean. Ezagutu eta hausnar dezagun beraz aurreko belaunaldiak ikusi eta ikasitakoez eta ekar ditza-gun gurera. ■